



AGINDUA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA, EUSKADIKO TURISMOKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGIN ETA GERO, KONTSULTA PUBLIKOA EGITEKO DENA

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Euskadiko Turismoaren Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hasteko asmoa du.

2022ko uztailaren 15ean argitaratu zen EHAAk ekainaren 30eko 6/2022 Legea, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarena, zeinak xedapen orokorrak egiteko prozeduraren arloko arauak txertatzen baititu testu berri batean, eta honela dio 11. artikulua:

“1. Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia.

2. Aldez aurretiko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako moldez egingo baita, non xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.

3. Aldez aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

4. Artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzat jo dezake testu juridiko arauemile bat aldez aurretik onetsi ondorengo araugintza-prozedurako instrukzio-faseko entzunaldi eta informazio publikoen izapideak. Memorian horrela jasota utzi beharko da, hala bada”.

Bestalde, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133.1 artikuluan dioenaren arabera, jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz: ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak, arau hori onestea beharrezko eta egoki den, arauaren helburuak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Horregatik, Euskadiko Turismoaren Legearen aurreproiektua egin aurreko kontsulta-izapide hori betetzen da, herritarrek parte hartzeko eta proposatzen den arauan ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.



Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 11ko 38/2025 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak erabilita,

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA. - Euskadiko Turismo Legearen aurreproiektuaren aldeko aurreko kontsulta publikoa egitea herritarrei, prestatu aurretik, 15 egun balioduneko epean, agindu hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-oholean eta Irekia gobernu irekiko plataforman argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

BIGARRENA. - Ebazpen honen eranskina onartzea, herritarrek ekimenari buruzko iritzia emateko behar duten informazioa duena.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean

JAVIER HURTADO DOMINGUEZ
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUA

ERANSKINA

EUSKADIKO TURISMO LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA.

1.-EKIMENAREN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Hainbat inguruabar direla eta, beharrezkoa da beste erregulazio bat. Azken hamarkadetan, Euskadik turismo-helmuga gisa eraldaketa sakona bizi izan du. Eraldaketa horren ondorioz, turismoa, gaur egun, eragile ekonomiko eta soziala da, eta ekoizpen-sarea dibertsifikatzen laguntzen du, aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortuta. Baina inpaktu ekonomiko horrek dimentsio sozial handia ere badu, eta hori agerian geratzen da turismoaren fenomenoak milioika bisitarik gure ondare komunaren eta gure bizimoduaren parte diren aktiboak, hala nola paisaia, ondarea, historia, kultura edo ohiturak, pertsonalki ezagutzeko duten interesa dutenean. Dimentsio ekonomiko eta sozial bikoitz horrek argi eta garbi mugatzen du etorkizuneko turismo-politika antolatze eta garatzeko jarraitu beharreko ibilbide-orria. Ikuspegi horren arabera, baliabide turistikoak zaintzea, eta babestea aldi berean administrazio publiko guztien betebeharra da, eta turismo-sektorearen jasangarritasuna bermatzeko ezinbesteko baldintza. Turismo-politikaren helburuak euskal turismo-eredua babestea eta zaintzea izan behar du, eredu horrek kalitatea eta jasangarritasuna baititu oinarri. Eta helburu hori lortu ahal izateko, turismoaren arloan azken urteotan gertatu diren aldaketa nagusietara egokitu behar da: kontsumo-modu berriak, negozio-eredu berriak, iraultza digitalaren ondorioz teknologia berriak agertzea, eta klima-aldaketaren eta haren ondorioen kontzientzia hartzean sortutako ingurumen-paradigma berria. Azken batean, jarduera ekonomikoa gizarte-ongizatearekin eta ingurumen-babesarekin harmonizatu nahi da. Hori dela eta, turismo-eredua turismo jasangarritantz bideratu behar da, eta hiru alderditan: ingurumena, gizartea eta ekonomia. Paradigma-aldaketak, beraz, jasangarritasuna Euskadiko turismo-politika guztiaren ardatz gisa hartzea eskatzen du. Hori dela eta, jasangarritasuna printzipio-gidari bihurtu behar da, eta haren hiru dimentsioak turismo-jarduera garatzeko funtsezko irizpide gisa definitu behar dira. Horregatik guztiagatik, legearen aurreproiektuak erantzuna eman nahi dio turismo-jarduera birdefinitzen ari den eraldaketa sakonari, eta turismo-eredu adimendun, dibertsifikatu eta balio erantsia sortzeko gai den baterako oinarriak ezarri nahi ditu, eredu turistiko moderno eta erresiliente batekiko erakundeen konpromisoaren adierazpen gisa.
--	---

2.- ARAU HORI ONESTEA BEHARREZKO ETA EGOKI DEN	Legearen aurreproiektuak segurtasun juridikoa eta kudeaketa publikorako gaitasuna hobetzea ziurtatzen dituzten elementu berritzaileak txertatzen ditu, eta turismo-jarduera modu eraginkorragoan eta koherenteagoan antolatzeko oinarriak ezartzen ditu, gizarte-, ekonomia- eta lurralde-errealitate berrietara egokituta. Hori dela eta, Euskadiko turismo-politikak hiru zutabe nagusi ditu: sektorearen lehiakortasuna, baliabideen jasangarritasuna eta lurralde-kohesioa. Horrenbestez, euskal turismo-eredu berria baliabide turistikoaren arrazoizko antolamenduaren, eskaintzaren dibertsifikazioaren, eskariaren desestazionalizazioaren eta irisgarritasuna sustatzearen inguruan egituratu behar da. Hori guztia dela eta, arau berri bat egin behar da, Euskadiko turismoaren arau-esparrua eguneratuta eta finkatuta, erantzun nahi zaien erronkak bilduko dituen.
3.- ARAUAREN HELBURUAK	• Euskal Autonomia Erkidegoa erreferentziazko turismo-helmuga gisa sustatzea, bere baliabideen kalitatearen eta aniztasuna direla eta bereizteko gai dena • Turismo-sektore lehiakorra sustatzea, lurralde osoaren garapen ekonomikoari eta gizarte-kohesioari lagunduko diona • Baliabide turistikoak modu integralean antolatu eta planifikatzea, horiek eraginkortasunez kudeatuta, haien kontserbazioa, zaintza eta erabilera arduratsua bermatuta, eta baliabide horiek degradatzea edo suntsitzea saihestuta. • Legez kanpoko eskaintza eta lehia desleiala desagerrarazteko jarduerak eta neurriak bultzatzea. • Turismo-zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak bermatzea eta babestea • Tradizioak eta tokiko kultura eskaintza turistikoaren elementu bereizgarri gisa baliozkotzea. • Turismoaren sektorean ingurumen-jasangarritasuna eta klima-aldaketaren aurkako borroka bultzatzea. • Sektore turistikoak aurre egin behar dien joera eta erronken ezagutza sakontzea. • Turismo-produktuen, -zerbitzuen eta -esperientzien dibertsifikazioa sustatzea. • Desestazionalizazioa eta deskontzentrazioa bultzatzea
4.- IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK	Aurreko ataletan azaldutakoa kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da araudi espezifiko berri bat egitea, eta ezin da beste aukerarik aurkitu. Lehenengo aukera erregulatzailea, azaldutakoagatik egokitzen jotzen ez dena, uztailaren 28ko 13/2016 Legea indarrean

	mantentzea da. indarraldiari eustea da. Bigarren aukera egungo idazkera aldatzea izango litzateke. Hasieran baztertu egin zen aukera hori, zeren eta, esan bezala, gaur egungo errealitateak indarrean dagoen lege osoa osorik berrikustea gomendatzen baitu, Euskadik arau-esparru bat izan dezan turismoaren sektoreak aurre egin behar dituen erronkei ahalik eta erantzun onena emateko. Gainera, beharrezkoa da helburu horiei lege-mailako arau batetik heltzea, eta, horren ondorioz, indarrean dagoen legea ordezteko lege berri bat egitea izango da aukerarik onena, berme legalak eta segurtasun juridikoa eskaintzen dituzten aukera ez-erregulatzailleak ez baitira bideragarritzat hartzen.
--	--